




2017-2020 PLAN ESTRATEGIKOA

Aurkezpena


- ▶ 2016. urtean zehar, gure III. plan estrategikoari buruz hausnartu dugu, hurrengo lau urteei begira.
- ▶ 60 bazkide eta langile baino gehiagok hartu dugu parte plan estrategiko hori egiten: lantaldeak osatu ditugu, eta, lantalde horiei esker, 2017-2020 plan estrategikoa egin dugu. Zenbait hilabetez, saio bateratuak egin ditugu. Saio horietan, azken plana ebaluatu dugu, bai eta barne- eta kanpo-diagnostikoa egin eta etorkizunerako erronkak zehaztu ere.





Aurkezpena

- ▶ Zuzendaritza Batzordeak eta Zuzendaritza Taldeak bideratu dute prozesua, eta La Salleko Ekintzen Sareko Animazio Taldearen laguntza jaso dugu.
- ▶ Bost hilabetez aritu gara prozesu horretan lanean, eskema honen arabera:



Etorkizun zehaztatzea

- Misioa
- Ikuspegia
- Balioak



Elkarbanatuz elkartea bat dator La Sallaren hezkuntza-misioarekin, eta lanean ari da gizarte justuago bat eraikitzeko, gizarte-aldaketaren bidez eta gizarte-egoera ahulean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza emanez.

2017-2020 Misioa



Gizarte-erakunde bat izatea, La Salleren oinarriekin bat datorrena, eta gizartea aldatzea eta erreferente bat izatea gizarte-egoera ahulean daudenekin egiten den gizarte- eta hezkuntza-lanari dagokionez.

2017-2020 Ikuspegia

2017-2020 Balioak

Identitate lasalletarra

- Barne- eta elkar-
hazkuntzarako espazio bat
eskaintzen dugu, gizarte-egoera
ahulean dauden pertsonen
gizarte- eta hezkuntza-laguntza
emateko oinarri gisa.

Elkartasuna

- Geure egin dugu behartsuen
eta zapalduen aldeko kausa,
eta haiekin batera borroka
egiteko konpromisoa hartu
dugu, gizarte justuago eta
kohesionatuago baten alde.

Senidetasuna

- Egian, berdintasunean, elkar
onartzean eta elkarrekiko
errespetuan oinarritutako
harremanetan sinesten dugu.

Lankidetzatza

- Beste entitate eta erakunde
publiko zein pribatu batzuekin
lankidetzan egiten dugu lan.

Eraginkortasuna

- Norberaren gaitasunen eta
eskura ditugun baliabide
materialen aprobetxamendu
hoberena bilatuz egiten dugu
lan, eta ingurumena
errespetatuz.

Erantzunkidetasuna

- Erakundea osatzen duten
pertsonek gaitasunak
errespetatzen eta bultzatzen
ditugu, eta erantzunkidetasuna
sustatzen dugu.

Berrikuntza

- Erakundea osatzen duten
pertsonek sormenerako eta
berrikuntzarako gaitasuna
sustatzen dugu.

Gardentasuna

- Gure ekintzaren etikan
oinarrituta, gure lanaren irudi
zintzoa eskaintzen diogu
gizarteari.

2017-2020 Errokkak

Gizarte- eta
hezkuntza- arloko
esku-hartzea

Kohesioa eta
gizarte-aldaketa

Misioaren
kudeaketa: izaera,
pertsonek eta
prozesuak



Gizarte- eta hezkuntza- arloko esku-hartzea

Erronkak

2017-2020 Plan Estrategikoa

1. **erronka:** gure lanaren indarra erakundearen programetan, zentroetan eta zerbitzuetan parte hartzen duten eta gure laguntza jasotzen duten pertsonen autonomia sustatzen jartzea.

- Pertsonak autogestio-prozesuetan (prestakuntza, enplegua eta emantzipazioa) ahalduntzeko estrategiak abiaraztea.
- Entitatean garatzen duten prozesuan, pertsoneri parte-hartzeko aukera emango dieten dinamikak finkatzea.
- Laguntzen ditugun pertsonen beharren diagnostiko- eta balorazio-prozesuak sustatzea, gure erantzunak egokitze aldera.
- Aurrez dauden prestazioak osatzen dituzten beste prestazioak aintzat hartzea eta garatzea, erabiltzaileen beharrak hobeto asetzeko.
- Laguntzen ditugun pertsonen gizarte- eta hezkuntza-prozesuak osatzen dituzten programak eskaintzea, eta haien bilakaera sustatuko duen egonkortasun pertsonala edo/eta familiartekoa bultzatzea.
-

2. erronka: Esku-hartzeko ditugun baliabideak eta metodoak sendotzea eta gure laguntza jasotzen dutenen beharretara egokitzea.

- Gure baliabideak egokitzea, hainbat Programa, Zentro eta Zerbitzutan identifikatutako beharrak asetzeko.
- Identifikatutako beharrei erantzungo dieten proiektu berrien garapena sustatzea.
- Zentroen, Programen eta Zerbitzuen arteko lan koordinatua sendotzea, kalitatezko esku-hartzea bultzatze aldera.
- Laguntzen ditugun pertsonen beharrei erantzun hobea eta eraginkorragoa eskaintzea, erakunde publikoekin eta pribatuekin elkarlanean.
- Gure gizarte- eta hezkuntza-metodologiak eta -ekintzak ebaluatzea, eta haien eraginkortasuna eta egokitzeko gaitasuna bultzatzea.
- Zeharkako dimentsioen integrazioa sustatzea esku-hartzeko gure metodologietan.



Kohesioa eta gizarte-aldaketa

Erronkak

2017-2020 Plan Estrategikoa

3. **erronka:** Gizarte zuzenago eta kohesionatu baten alde lan egitea, elkarlanaren eta gizarte-eraginaren bidez, eta herritartasun globala bultzatuz.

- Salaketaren bitartez, bai eta erakundearen parte diren pertsonen parte-hartze sozialaren bitartez ere, gizartean eragina izatea.
- Hirugarren Sektore Sozialean dugun presentzia finkatzea, gizarte-kohesiorako eta -eraldaketarako eragilea den aldetik.
- Boluntariora sustatzea, elkartasun-dinamizatzailea den aldetik.
- La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarearen bitartez, hura indartzeko lan egiten jarraitzea, gizarte-trukerako eta -eraginerako espazio den aldetik.
- Sentsibilizazioko eta nazioarteko lankidetzako programen bitartez, herritartasun globalaren eraikuntzan parte hartzea.
- La Salleko Hezkuntza Ekintzen Sarearekin eta GGKE-ekin lan egitea, eta baterako gizarte-ekintza nabarmentzea.



Misioaren kudeaketa: izaera, pertsonak eta prozesuak

Erronkak

2017-2020 Plan Estrategikoa

4. **erronka:** Erakundearen misioarekin bat datorren oinarri sozial baten parte-hartzea, gaitasunak eta garapena sustatzea.

- Bazkidez, kolaboratzailez, boluntarioz eta langilez osatutako oinarri sozial zabalagoa eta kohesionatuagoa sustatuko duten dinamikak bultzatzea.
- Bazkideen, boluntarioen eta langileen parte-hartzea sustatzea entitatearen bizitza asoziatiboan.
- Harremana eta parte-hartzea sustatzea La Salle Sarean.
- Talde profesionalen eta boluntarioen prestakuntzarekin eta gaikuntzarekin jarraitzea, erakundearen misioari erantzute aldera.

5. **erronka:** Iraunkortasunean oinarritutako elkarte bat finkatzea, kudeaketa etiko, arduratsu eta gardenaren bitartez.

- Gure antolakuntza-estilo arduratsu, etiko eta gardenari eustea, eta estilo hori indartzea.
- Gure kudeaketa-zikloa garatzen jarraitzea.
- Entitatea funts propio gehiagoz hornitzea.
- Langileen kudeaketa arduratsua eta eraginkorra sustatzea.
- Erakundean, zeharkako lanerako dinamikak hobetzea eta optimizatzea.
- Aitortutako eta ziurtatutako kalitate-prozesuei jarraituz lan egitea.
- Sormena eta berrikuntza sustatzea.



www.elkarbanatuz.org

ELKARBANATUZ ONGINTZAKO LAGUNTZA ELKARTEA

Madariaga etorbidea nº 69, 48014 Bilbao

Tel. 94 475 76 43- 617 966 377 – Fax: 94 475 01 51

Eposta: info@elkarbanatuz.org